

‘Erbeste’: itzulera baten kronika

- Juan Garziaren liburu berria da ‘Erbeste’; Erein argitaletxearekin plazaratu du.
- Urte askoren ondoren etxera itzultzen den emakume bat du protagonista.

Amaia Jimenez Larrea

DONOSTIA—Bestelako lan batzuk plazaratu dituen arren, 30 urte ziren Juan Garzia idazle eta itzul-tzaileak fikziozko lanik kaleratzen ez zuela. Azken urteetan itzul-pengintzari lotuta egon da batez ere, eta literatura unibertsaleko hainbat lan euskaratu ditu; azkena, Herman Melvilleren *Moby Dick* (Balea Zuria, 2023). Baina amaitu da fikzioaren arloko eternaldia, *Erbeste* liburua plazaratu baitu Erein argitaletxearekin. Gogo sumatu ahala idazten duela adierazi du Garziak, hainbeste urteren buruan fikziozko lan bat kaleratzeko erabakia azaldu nahian: «Oraingoan atera zait, eta organikoki idatzi dut». Ereinen Narratiba sailean sartu dute lana, baina egileak ez du uste *Erbeste* eleberri bat denik. «Deituozue *elleberri* edo *ñobela*, nahi baduzue», gaineratu du.

Hainbat urtez atzerrian bizi izan eta gero jaioerrira itzuli den emakume bat da liburuko protagonista —kontalaria ere bada; lehen pertsona dago idatzia kontakizuna—. Etxera itzultitakoan, ordea, ohartuko da dena aldatu dela: ingurua, etxea, ingurukoekin zituen harremanak... Ez du topatu duela urte batzuk utzitako hura. XX. mendearen amaieran kokatu du istorioa Garziak, eta, kontatu duenez, horrek distantzia hartzea behartu du idazteko orduan. «Horretan eta beste

gauza askotan badakit ez nabilela *mainstream*-ean», aipatu du.

«Protagonistarentzat ez da soilik leku batera itzultzea izango. Garai batera itzultzea, oroimenez itzultzea, eta harremanetara itzultzea ere izango da», azaldu du Inazio Mujika Iraola Ereineko editoreak. Izan ere, jaio zen base-rrira itzuli bezain pronto ikusiko du protagonistak lehen aldaketa. Baserriak lehengoa dirudi kanpotik, baina barrutik erabat berrituta dago. Baserriek azken urteetan izandako aldaketak azaldu nahi izan du egileak hala, eta modernitatearen eraginak ikusarazi.

Protagonistaren aita eta anaia dira *Erbeste*-n agertzen diren pertsonaia nagusietako batzuk. Lehenak ez du harreman sendorik kontalariarekin, eta, Mujika Iraolaren ustez, «isiltasunaren bidez» gertatzen da haien arteko hartu-eman. Anaiarekin, ordea, harreman bereziagoa du protagonistak. Beste anaia bat eta ama ere agertzen dira pertsonaien artean, biak jada hilak. Batez ere amarengan jarri nahi izan du arreta egileak.

Pertsonaien «sekretuak»

«Pertsonaiek ez didate dena esaten», kontatu du Garziak. Izan ere, gertaerak irekita utzi nahi izan ditu liburuan, irakurleak berak osatu ditzan. «Pertsonaiek ez badidate euren sekretuen berri ematen, hor doaz; inkontzientziatik. Inkontzientzia oso baliabide ona da literaturarako», gaineratu du. Hain zuzen, Mujika Iraolarentzat, irakurleak berak rol hori izatea da lanaren bereizgarrietako bat: «Irakurketa biziagoa egiten du».

Orainaldiko pasarteak biltzeaz gain, istorioak iraganera jotzen du sarritan. Protagonistaren haurtzaroko du presentziarik handiena; pixkanaka hura berreraikitzen saiatuko da. Garzia: «Batuetan, oraingoari begira egongo da, baina baita bizi ez zuten iraganera ere». Hori dela eta, editorearen iritzi, «nobela fragmentario bat» da *Erbeste*: «Li-



↑ Juan Garzia, atzo Donostian, aurkezpenaren aurretik. JON URBE / FOKU

buruan iragana ez da zerbait itxia: etengabe sartzen da orainean».

Idazleak Tolosan eta inguruko herrietan girotu du kontakizuna. «Tolosa da, baina lizentzia batzuekin», aitortu du. Izan ere, idazleak ezagun ditu herria eta inguruko parajeak, baina ez hangoek bezain ondo. Horrek hainbat elementu asmatzen lagundu dio, tartean zubi bat.

Orain arteko lanetan ez bezala, lehen pertsona erabili du Garziak oraingoan. Haren esanetan, horrek dena aldatu du idazketa prozesuan: «Tarte handia uzten dio irakurleari». Alde batera utzi du narratzaile «astun orojakile», eta adinari egotzi dio erabaki hori; «Ikasi du pertsonaia bakoitzak bere portaera erakutsi behar duela». ●



«Pertsonaiek ez badidate euren sekretuen berri ematen, hor doaz; inkontzientziatik. Oso baliabide ona da literaturarako»

JUAN GARZIA
Idazlea eta itzul-tzailea